



Zapore «gazi-goza» utzi dio finalak Barriolari

LEITZA ▶ 10-22 galdu zuen Buruz Buruko Txapelketako finala, Aimar Olaizolaren aurka

MAILA ▶ Julian Iparragirre pilota adituaren esanetan, «txapela galdu arren txapelketa borobila egin du» ▶ 7

IBARRA ▶

Gazte Festak amaituta, arduradunak «pozik»

Maritxu sukaldaria omendu dute Gazte Asanbladakoek ▶ 6

AITOR SARASOLA ▶
ALEGIKO ALKATEA



N. URBIZU

«Lan egiteko gogoia eta ilusioa du udaltaldeak»

EAE-ANV alderdiko alegiarra «gogotsu» azaldu da ▶ 5

ZIZURKIL ▶

Euskal Herriko selekzioa bigarren

Halterofilian lortu du Intxaurren ▶ 4



Erlojupeko proban, Gaztelu eta Laier taldeak nagusi

TOLOSA ▶ San Joan jaietako batel estropaden lehen jardunaldia izan zen herenegun Tolosako Ori ibaiako uretan. Bertan lehia gogorra bizitu zen arraunlarien artean; mutiletan, sailkapeneko lehen sei batelek jokatu dute finala, datorren igandean, hilaren 24an. Nesken txandan, berriz, lehen lau sailkatuak ariko dira fina-

lean. Hauexek izan ziren sailkatuak: mutiletan, Gaztelu —argazkian—, Izaskun, Orma, Amarotz, Ibarra eta K-II, hurrenez hurren. Nesken sailkapenean, hurrenez hurren, Laier, Ibarra, Txinparta eta Izaskun taldeak izan ziren lehenak. Hurrengo igandean erabakiko dituzte irabazleak. IBON AZPIKUIETA ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Maria Luisa Gabirondo gazteluarra gailendu da Sega Txapelketako lehen kanporaketan

Gizonezkoetan, Joxe Gabirondo gazteluarrak hirugarren egin zuen ▶ 3

BATELAK ▶



Erlojupeko estropadetan nesketan Laier izenko taldea izan zen garaile, eta mutiletan, Gaztelu. E. EZEIZA

Gaztelu eta Laierreko arraunlariak nagusi erlojupeko proban

Igandean jokatu da San Joan jaietako estropadetako finala, nesken lau talde eta mutilen sei izango dira lehian

ESTI EZEIZA

Sanjoanak gainean direla iragarri, batel estropadak jokatu ziren herenegun Oria ibaian. Igandekoan mutilez osatutako hamar taldek hartu zuten parte, eta hautetik sei sailkatu ziren finalerako. Nesketan berriz, bost batelek hartu zuten parte, eta hautetik ere lau sailkatu ziren igande honetan jokatu diren estropadetarako. Lau txandatan banatuta aritu ziren 15 ontziak. Ikusle ugari bildu zen Oria ibaiaren ertzean.

Igande honetan San Joan jaien baitan jokatuko dute finala, estropadak 12:30ean izango direlarik. Berritro ere Oria ibaiaren ertzean da eskenatoki.

Sailkapen estropadetakoak,

FINALERAKO SAILKATUTAKOAK ▶

NESKAK

1. Laier
2. Ibarra
3. Txinparta
4. Izaskun

MUTILAK

1. Gaztelu
2. Izaskun
3. Orma
4. Amartz
5. Ibarra
6. K-II

erlojuaren aurkako saioa izan zen, batel bakoitzak itzuli bat eman behar izan zuen. Non honetarako denbora gutxien behar izan zuten taldeak sailkatu

ziren. Nesketan, Laierrekoek bost minutu eta 17 segundo behar izan zituzten. Bigarren Ibarra taldeak izan ziren, hauek 5 minutu eta 24 segundoko denbora egin zuten. Talde guztiek ere sei minutu baino gutxiago behar izan zituzten.

Mutiletan, lehendabiziko itzulian Orma taldekoak nagusitu ziren, 4 minutu eta 55 segundoko denborarekin. Bigarren Gaztelukoak, hauek, lau minutu eta 33 segundo behar izan zituzten, beraiek izan zirelarik parte-hartzaile guztiak kontuan hartuta, denbora gutxien egin zutenak. Hirugarren saioan bi talde bakarrik lehiatu ziren, eta hemen Emendek izeneko batela izan zen garaile, dena den, hauek ez ziren finalerako sailkatu.

XAKEA ▶

Eskualdekoak garaile sanjoanetako txapelketan

14 taldek hartu zuten parte norgehiagokan

ERREDAKZIOA

Herenegun, herriko jaietako egitarauaren barruan, XXXIV San Joan Nazioarteko Xake Txapelketa / Enrique Pinedaren oroimenezko XXXI. Saria jokatu zuten Kultur Etxeko areto nagusian. Txapelketak 14 talde bildu zituen, Gipuzkoa eta inguruko probintziatik etorrita.

Txapelketa etxeoket irabazi zuten, Tolosa-Ibarrako lehen taldeak alegia. Txapelketa bikaina egin zuten, txanda bat bera ere galdu gabe. Bigarren Sociedad Ajedrecistica Logroñesa taldea sailkatu zen, iazko txapelketa. Eta hiruga-



14 talde lehiatu ziren. HITZA

rren Errenteriako Fomento Beraun-Bera izan zen, Euskadiko txapelketaordeak.

Txapelketako jokalaririk onenaren saria Abadiñoeko Yerai Galtzagorrik eraman zuen, eta jokalaririk kadete onenarena Eizabarko Julen Garrok.

AISIA ▶



Jende ugari bildu da sanjoanetako zezenketetan

Erredakzioa ▶ Egungo zezenketen munduko toreatzailerik eza-gunenak izan ziren igandean Tolosako zezen-plazan. Jesulin de Ubriek eta Francisco Rivera Ordoñezek belarri bana eraman zuten, eta Manuel Benitez *El Cordobesek* bi. Plaza erdia baino gehiago bildu zen ikuzkizunean eta gogoz txalotu zituzten toreatzaileek egindako lanak. Zezenketaren harira, protestak ere burutu zituzten hauen aurkako ehunka jarraitzailek. J. SAIZAR

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

SEGA ▶

Maria Luixa Gabirondo nagusitu da txapelketako lehenengo kanporaketan

Larunbatean jokatu zuten lurreamendiko zelaian Nazioarteko Erako III. Txapelketa; gizonetakoan, Joxe Gabirondo gazteluarra hirugarren izan zen

IÑIGO TERRADILLOS

Iragan larunbatean jokatu zuten Nazioarteko Erako III. Euskal Herriko Txapelketaren lehen jardunaldia, Tolosako lurreamendiko zelaian. Denera, gizonetakoan 27 segalari aritu ziren, eta hirugarren postua lortu zuen eskualdeko segalari batek, Joxe Gabirondo gazteluarra, hain zuzen. Emakumezkoetan, berriz, bederatzik segalari lehiatu ziren, eta onena Maria Luixa Gabirondo gazteluarra izan zen.

Lehia hasi aurretik bi baja izan ziren, Kepa Albizua arabarrak huts egin baitzuen eta haren ordez, Igor Astondoa lehiatu zen, eta Naroa Gerestak ere ez zuen parte hartu, bere lekua Maite Irazustabarrenak betetz. Hala, gizonetako 100 metro kuadroko sail bana ebaki behar izan zuten eta emakumezkoek 35 metro kuadrokoa. Oro har, «aski belar ona, gozoa eta ebakitzeko aproposa» aurkitu zutelada adierazi zuten segala-



Larunbatean Tolosan izan zen kanporaketako irudiak. NEREA URBIZU

riek. Segalari bakoitzak saila ebakitzeko behar izan duen denbora eta ezarritako zigorrak aintzat hartuta, Juan Agirrezabala lazkaotarra izan zen gizonetako denbora onena egin zuena, 03:02.15ekin. Bigarren Igor Esnaola legorretarra izan zen, eta hirugarren, Joxe Gabirondo gazteluarra.

Emakumeetan onena, Maria Luixa Gabirondo gazteluarra izan zen 01:08.69ko denborarekin, eta bere atzetik sailkatu ziren Arrate Garin legorretarra eta Ainhoa Ansa aranoarra.

200 ikusle inguru bertaratu ziren lurreamendiko belardira, eta giro polita nagusitu zen. Saio osoak bi ordu iraun zi-



tuen, eta amaieran segalari bakoitzak 30 euroko diru-saria jaso zuen.

Bigarren jardunaldia, eta Austrian abuztuan izango den Europako Txapelketarako selekzioa osatzeko erabakigarria izango dena, hilaren 24an jokatuko dut, Olaberrian, 18:00etatik aurrera.

SAILKAPENA ▶

GIZONEZKOAK (100 METRO KUADROKO SAILA)

Izena	denbora
1. Juan Agirrezabala (Lazkao)	03:02.15
2. Igor Esnaola (Legorreta)	03:05.12
3. Joxe Gabirondo (Gaztelu)	03:06.95
4. Jexumari Goenaga (Errezil)	03:08.48
5. Juanjoxe Lizaso (Asteasu)	03:10.81
6. Andoni Galkoetxea (Gaztelu)	03:11.51
7. Andoni Egia (Orendain)	03:12.75
8. Arkaitz Artega (Baliarrain)	03:16.92
9. Bixente Mibelena (Oiarzun)	03:18.89
10. J. Garmendia (Baliarrain)	03:20.16
11. Iñaki Izagirre (Zaldibia)	03:27.36
12. Aitor Esnaola (Legorreta)	03:30.95
13. M. Jauregi (Zaldibia)	03:34.81
14. Aitor Alkain (Asteasu)	03:54.36
15. Jokin Ebeberria (Amasa)	03:59.75
16. J. Ormaetxea (Orendain)	04:05.03
17. Iñaki Lizaso (Asteasu)	04:08.09
18. Jon Kanflanka (Leitza)	04:08.58
19. D. Mariñelarena (Lantz)	04:17.32
20. A. Zuriarrain (Amasa)	04:25.47
21. Joxe Atin (Ormaiztegi)	04:41.90
22. G. Ebeberria (Amasa)	04:44.85
23. Josu Otaegi (Asteasu)	04:59.36
24. Unai Berriozabal (Araba)	05:34.28
25. Jean Mondela (Urruña)	05:48.91
26. Igor Astondoa (Zeanuri)	05:55.88
27. Joseba Azpiroz (Lizartza)	07:16.51

EMAKUMEZKOEN MAILA (35 METRO KUADROKO SAILA)

1. M. Gabirondo (Gaztelu)	01:08.69
2. Arrate Garin (Legorreta)	01:20.95
3. Ainhoa Ansa (Arano)	01:47.50
4. Ainhoa Mazkianan (Altsasu)	01:53.14
5. Maite Irazustabarrena	01:59.44
6. Irati Astondoa (Zeanuri)	02:28.47
7. Josune Gorostidi (Gaztelu)	02:53.81
8. Iurre Olanu (Gaztelu)	02:57.66
9. Aranba Urbleta (Orexa)	03:26.59

KULTURA ▶

Jende ugari eta giro berezia txistulari bandaren sanjoanetako alardean

Tolosako Orfeoia, dantzariak eta abeslariak ere hartu zuten parte



Herenegun arratsaldeko txistularien alardeko une bat, Berdura Plazan. IÑIGO AZPIRIKUIETA

ERREDAKZIOA

San Joan jaiak hastear dira, eta festarako egunak gerturatzen ari diren heinean, gero eta ekitaldi gehiagoz gozatzeko aukera dago herrian. Horren adibide da, esaterako, herenegun iluntze partean Berdura plazan antolatutako ekitaldia, Tolosako udal txistulari bandak eskainitako sanjoanetako txistu-

lari alarde berezia, hain zuzen. Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean abesti ugari izan ziren entzungai, metalezko boskoteak, Tolosako Orfeoia, perkusioak, dantzariak eta abeslariak lagunduta, gainera. *Baldorba, Xalbadorren heriotzean* eta *Ikusi mendizaleak* bezalako kantak izan ziren Berdura Plazatik herri osora zabaldutako doinuetako batzuk.

GOIERRIKO HITZA-K KAZETARIA behar du

▶ Eskatzen da:

- ▶ Kazetaritza arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- ▶ Euskaraz ondo egitea.
- ▶ Izaera dinamikoa izatea.
- ▶ Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, bidali curriculum, **ekainaren 27a** baino lehen, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: goierrigoierrikohitza.info

Posta helbidea: **Urbalde plaza, 7, behe. 20200 BEASAIN**

'18/98 AUZIA' ▶

Auzipetuak itxialdia egiten ari dira

Erredakzioa ▶ 18/98 auziko in-putatuak itxialdia egiten ari dira Gernikako (Bizkaia) Elai-Alai aretoan. Igandean hasi eta ostiralera arte iraungo du ekimenak. Sententziaren zain direnean, «eskubide zibil, politiko eta giza eskubideen urraketari ezetza emateko» asmoz ari dira, *Berrito ez!* lelopean. Nekane Txapartegi asteasuarrak gaur eta etzi hartuko du parte. Asteazken hitzaldiak eta elkarretaratzeak antolatzen ari dira, atzo azoka eguna zela aprobetxatuz egindakoa, adibidez. M. ORUE/BUSTURIALDEKO HITZA



ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Bigarren postua lortu du Euskal Herriko selekzioak Intxaurren

Irabazlea Katalunia izan zen eta Galizia gelditu zen hirugarren; «maila handiko» lehiaketa ikusi ahal izan zen



Lehiaketan parte hartu zuten hiru herrialdeetako pultsulari eta entrenatzaileak. HITZA

IMANOL GARCIA

Euskal Herriko selekzioak bigarren postua lortu zuen Zizurkilen herenegun jokaturako hiru herrialdeen arteko halterofilia txapelketan. Lehenengo postua aurkari gogorrena espero zen Kataluniako selekzioak jaso zuen. Hirugarren lekuan gelditu zen Galiziako selekzioa.

Batis Kortajarena Euskal Herriko hautatzailea eta Danena-Olaederrako prestatzaileak azaldu duenez, «ondo hasi zen lehiaketa guretzat, 17 urtez azpikoen eta junior mailan emaitza onak lortu genituen eta». Baina gero senior mailan etorri zen kataluniarren gorakada eta bere izar nagusia zen Sergio Martinezek puntu asko lortu zituen eta horrek garaipena

beraiztatzea ahalbiderratu zuen. Kataluniak 1.571 puntu lortu zituen, Euskal Herriak 1.508 eta Galiziak 1.430.

Teddy Martinez zizurkildarrak ezin izan zuen parte hartu lehiaketan, Espainiako selekzioarekin Junior Mailako Munduko Txapelketan baitzegoen Pragan. «Teddyren parte-hartzearekin nahiko aukerak geneuzkan irabazi ahal izateko»,

azaldu du Kortajarenak. Talde bakoitzetik bost pultsulari aritu ziren eta Euskal Herrikoan hiru pultsulari Danena-Olaederrakoak ziren, hirurak zizurkildarrak.

Maila ona

Eskualdekoek maila ona eman zuten lehiaketan. Igor Sasiainek 17 urtez azpikoen mailan parte hartu zuen eta bera izan zen irabazlea. Taldeari 291 puntu eman zizkion. Arrankadan 95 kilo igo zituen eta bi denboratan 110 kilo. Ez zen iritsi berak nahi zuen markak lortzera, baina txalotzekoa izan zen bere ahalegina.

Angel Martinek 17 urterekin junior mailan parte hartu zuen. 95 kilo igo zituen arrankadan eta 110 kilo bi denboratan, taldeari 273 puntu emanek. Bere mailan bigarren postuan gelditu zen.

Ekaitz Kortajarena senior mailan aritu zen eta bederatzigarren artean bosgarren postua lortu zuen. 310 puntu bildu zituen taldearentzat, arrankadan 90 kilo eta bi denboratan 120 kilo igoaz. Eskumuturrean lesioa izan zuen iaz eta oraindik ez da guztiz osatu. Horrek arrankadan bere ahalmen guztia erakustea eragotzi zion.

Ikuslegoa joan bazen ere, «espero baina gutxiago» izan ziren Intxaurren frontoian bildutakoak, azaldu du Kortajarenak. Balantzea «oso positiboa» izan da prestatzaile zizurkildarrak adierazi duenez, bai Kataluniako bai Galiziako taldeak «oso gustura» egon zirelako herrian eta «maila handiko» halterofilia lehiaketa ikusi ahal izan zelako.

ANOETA ▶

Hainbat ikastaro uztaileko kiroldegian

Abraham Olano kiroldegian hainbat ikastaro antolatu dituzte uztaileko. Haurren ikastaroak aerobik-batuka eta jardueren anitzak eta helduentzako yoga, pilates, GAP, aerobik, salsa, hirugarren adineko gimnastika eta cycling. Deskontuak izango dituzte kiroldegiko abonatuak, gazte txartela dutenek, familia ugariokoe, langabetuek, 60 urteko gorako jubilatuek, pentsionistek, ikasleek eta diru sarrera baxuak dituztenek. Izena emateko epea hilaren 22an amaitzen da.

IRURA ▶

Jubilatuentzat irteera antolatu du Udalak

Irurako Udalak jubilatuentzat irteera antolatu du etzirako. 10:30ean Aizpurua Jatetxearen aurrean autobusa hartuko dute eta Irungo Oiaso museora joango dira. Erromatar garaian egon ziren lanbide desberdinak ikusi eta jokoak egingo dituzte. Ondoren autobusa hartu eta Hondarribira joango dira Gran Sol jatetxera bazkaltzera. Ondoren paseotoxo bat egingo dute herriitik. 16:30ean abiatuko dira.

VILLABONA ▶

Emaitza «bikainak» Behar-Zanakoek

Behar-Zana kirol elkartetik azaldu dutenez, «bikain» aritu dira bertako pilotariak Tolosaldeako IV. Pilota Topaketetan. Nagusietan Iñaki Lizasok lau t'erdiko txapeladuna izan da eta alebin mailan Ormazabal eta Erasun txapeladunordeak izan dira.

ZIZURKIL ▶

Herrian abesbatza sortzeko bilera egingo dute bihar

Zizurkilen abesbatza sortu nahi dute herriar batzuk eta horretarako bilera bat egingo dute bihar, 20:00etan, Iriarte Etxean. Deialdi irekia egun dute parte hartu nahi duen guztiak bertara azaltzeko.

AITOR SARASOLA ▶ ALKATEA

«Udaltaldea lan egiteko gogoarekin eta ilusioarekin dago»

Alegiko udaletxean EAE-ANVren 8 zinegotzi eta oposizioan PSE-EEren bat izango dira lau urteetarako

NEREA URBIZU

Alkate berriak dagoeneko izendatuta, hasi dira udaletxetan lanean. Alkate batzuk aurreko legealdian zeudenak dira, baina beste asko berriak dira. Hau da Alegiko kasuan gertatu denetako bat: EAE-ANVren zerrendaburua Aitor Sarasola da Alegiko alkate berria (Alegia, 1978).

Zure lana utzi egin duzu alkate izateko.

Bai, lau urtez zinegotzi izan naiz, kiroleko eta gazteri zinegotzia, eta orduan denbora pixka bat kentzen zidan eta neure lanarekin ezin allegatu ibiltzen nintzen ia. Alkate izateko denbora behar dela uste dut, lanak ondo egin nahi izanez gero, behintzat. Berogailu-teknikaria nintzen eta nahitaezko eszedentzia eskatu nuen lau urteetarako.

Nola ikusten duzu zure eserleku berritik dena?

Olatz Amundarain alkate ohia-

rekin nabil; asko laguntzen dit eta lagunduko dit hilabete batzuetan. Beldur pixka bat ematen du honek, bat-batean zinegotzi izatetik alkate izatera pasa naizelako. Oraindik denbora behar dut, eta behar da, gauzak ikusteko, baina jarriko gara.

Aurten ez da EAJ aurkeztu eta alkatezta ere izan du Alegian.

Bai, beti aurkeztu da EAJ, eta baita EA ere. Dirudenez alderdi hauetako jendea ez zegoen prest aurkezteko, edo zerrenda osatzeko arazoekin ibili dira... Lau urte hauetan oposizioan ere egon dira. Bitxia, lotsagarria da; batzuk aukera ez eduki aurkezteko eta herria ordezkatzeko, eta beste batzuk, berriz, ahal izanda, zerrendarik ez aurkeztu. 187 bat boto zuri izan dira, eta horietako asko suposatzen da EAJrenak ziren, hau da; bi zinegotzi edo.

Pozik osatutako taldearekin?

Bai, oso gustura taldearekin. Aurreko legealdiko bi gaude, eta beste seiak berriak dira. Adin ezberdineko jendea, 25 eta 55 urte bitartekoak, gutxi, gorabehera. Zentzu horretan oso parekatua ikusten dut taldea: lan egiteko gogoarekin eta ilusioarekin dago. Gainera, jendearen, herritarren babesa sentitzen dugu.

PSE-EEk zinegotzi bat ere badu.

Bai. Mementura arte ez dugu harremanik izan, baina idazkaria harremanetan jarri da PSE-EEren zentralarekin. Alegian aurkeztutako zerrendako guztiak uko egin diote kargua hartzeari: kasu honetan, Udaleko zinegotzia Ana Isabel German izan behar zen, baina Legorretan aritutako zinegotzi bat etorriko da. Harremanetan jarriko gara, ikusteko zer asmo duten.

Zer behar ikusten dituzu herrian?
Hasteko, San Juan kaleko obrak: berrizatzeko lehen fasea martxan dago eta bukatu ondoren bigarrenarekin hasi-



N. URBIZU

PSE-EE-REN BAT

«Udaleko zinegotzia Ana Isabel German izan behar zen, baina Legorretan aritutako bat etorriko da»

ZINEGOTZIAK

«Oso parekatuta ikusten dut taldea: gainera, herritarren babesa sentitzen dugu guztiok»

PROIEKTUAK

«Babes ofizialeko etxeak egin nahi ditugu eta baita 0-3 urte bitartekoentzako haur eskola ere»

ko dira. Babes ofizialeko etxeak ere egin nahi ditugu, eta baita 0 eta 3 urte bitartekoentzako haur eskola ere. Proiektua egin dago baina ikerketa hidrologikoaren zain gaude, arazo batzuk eman dituelako. Errekaren ondoan joango lirateke biak. Bestalde, herriak autoak aparatzeko arazoak ditu, eta ia nolabaiteko irtenbideren bat ikusten dugun, baina zaila da herri honetan. Kultur Etxean igogailua, berogailua eta aire egokituua jarriko ditugu. Pilotalekuan ere birgaitze lanak behar dira.

AHTren gaineko erreferenduma egin zenuten Alegian.

Abiadura Haniko Trenari ehuneko kopuru handi batek esan zion ezetz, proiektuari berari, eta Alegiko Udalak beharrezko baliabideak jarriko ditu martxan AHTren aurka dauden talde nahiz erakundeei laguntza emateko.

UDALA ▶

Alkatea. Aitor Sarasola.

Alderdia. EAE-ANV.

Zinegotziak. Maider Jauregi, Hektor Collinas, Eider Zubillaga, Patxi Xabier Renovales, Jose Manuel Oyarzabal, Jose Manuel Garaialde eta Jose Luis Beain.

Oposizioa. PSE-EE.

Zinegotzia. Ana Isabel German izango litzateke, baina zerrenda guztiak uko egin dio Udala osatzeari. Haren ordez, Legorretan aritu den zinegotzi bat izango da.

EAEren hainbat zerrenda baliogabetu dituzte. Zer duzu esateko?

Egoera txarra da, antidemokratikoa guztiz. Baliogabetu ez dituzten EAE-ANVren zerrendak horrekin ere hari batean bezala geratzen gara, edozein

mementutan ilegalak izan gaitzkeelako eta gu baliogabetu gaitzakatelako: Guk ere arrisku hori daukagu. Herri garrantzitsuetan ere EAE-ANVk alkatezta lortu du, eta aldaketa nabarmena emango da eskualdean, hori ziur, eta hobera espero dut.

Berogailu-teknikari edo alkate. Zer uste duzu dela gogorragoa?

Berogailu-teknikari gisa, baldintzak gogorragoak dira, noski: fisikoagoa ere bai. Alkate izanik jendearekin zuzeneko hartu emana izan behar duzu, eta beti babestuta, bulego batean zaude sartuta. Alkate izateak bulegoan ordu batzuk sartuta egotea suposatzen du, eta arratsaldetan bilerak, eta bestelako gauzak. Egun osoa eman behar da. Argi dago lan batean eta bestean gustuko ez diren gauzak daudela; alde onak eta txarrak dituzte.

IBARRA ▶ GAZTE FESTAK 2007

Gazte Festak amaitu eta Sanbartolomeei begira festazaleak

IGAk Gazte Bazkarian Maritxu omendu zuen, urteetan bazkaria prestatzeko ardura hartu izana eskertuz



Urteetan Gazte Bazkaria prestatu duen Maritxuri eskerrak eman zizkieten, bere azken urtean. IBON AZPILIKUETA

ASIER IMAZ

Herenegun amaitu ziren 2007ko Ibarako Gazte Festak. Ostiraletik igandera ekitaldi eta kontzertu ugari ikusteko aukera izan zen herriko plaza eta Gaztetxean. Etsaiak, Des-Kontrol eta EH Sukarra taldeen kontzertuak, besteak beste, eta pailazoak, dantzariak, mus txapelketa eta txokolatada ekitaldien artean. Berrikuntzen artean, baso berrerabilgarrien era-

bilera aurkitzen da. Lehen aldiz, Gaztetxean eta txosnetan Ibarako Gazte Asanbladak (IGA) ateratako basoak erabili ziren. Euro bateko kostua bazuten ere, itzuli ezkeru dirua ere itzuli egiten zen.

Azken egunean berriz, Gazte Bazkaria egin zuten Xepla elkartean. Bertan, urteetan zehar bazkaria prestatu duen Maritxuri omenaldia burutu zioten. «hau izango baita Gazte Festetan prestatzen duen azken baz-

karia». Ibarako Gazte Asanbladatik eskerrak emateaz gain, lore eskaintza eta Gazte-txetik igarotako belaualdiekin ateratako argazkia oparitu zioten.

Arratsaldean Loatzo musika eskolako haurrak kantu emalnia eskaini zuten instrumentu ezberdinekin kanta ezagunak kantatuaz. Iluntzean berriz, Gazte Festei amaiera emateko EH Sukarraren kontzertua egon zen Gaztetxean.

IBARRA ▶ KIROLA



‘Ziklo Indoor’ Maratoia jokatu zen larunbatean kiroldegian

A. Imaz ▶ Joan den larunbatean, *Ziklo Indoor* Maratoia jokatu zen Ibarako kiroldegian arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Bertan 60 partaide inguru elkartu ziren. Ibaratik Misio Taldeak eta Bizkortzen Kirol Ekintzak *Ziklo Indoor* Maratoia antolatzen zuten lehen aldia zen. Partaideak maratoia zuzentzen aritu ziren irakasleak izan zituzten aurrean. ESTI EZEIZA

LEABURU ▶

Arrospide Nazabalen atzetik

La Puebla de Arganzonon (Araba) igandean jokaturako Aizkolari Txapeldunen Ligagan, Anjel Arrospide bigarren geratu zen Floren Nazabalen atzetik. Hirugarren Lopez Azpilikueta geratu zen. Nazabalek ia saio guztian erakutsi zuen bere nagusitasuna.

IBARRA ▶

‘Oporretan Euskaraz 2007’ uztailen

Oporretan Euskaraz 2007 udaleku irekietarako izena emateko aukera zabaldu dela jakinarazi du Uzturpe Ikastolak. Udalarekin batera antolatutako udalekuak uztailen burutuko dira eta herriko haur guztientzat zabalik dago deialdia. Informazio gehiago, 943 67 12 99an.

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetekin
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • TOLOSA
943 65 40 37

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

SHANTI
KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
T O L O S A

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

LEITZA ▶ PILOTA

ERREDAKZIOA

Herenegun Abel Barriolak ez zuen Aimar Olaizola gailentzerik izan eta garaipen honekin, goizuetarrak buruz buruko bigarren txapela eskuratu zuen.

Abel Barriolak ez du, beraz, aurtun buruz burukoaren txapela eskuratu, baina lortutako marka ez da makala izan, pasatako urte iluna eta gero eskuz banakako bi final handietara iritsi baita.

Barriolak lehenengo sakea atera bazuen ere, leitzarrak ez zuen lehenengo tantoetan asmatu, eta 0-6 galtzen zihoala, sakea berreskuratu ondoren, Olaizolaren 0-7koa neutralizatzen hasi zen. Sakean oinarrituz, goizuetarra sufriarazi zuen, eta markagailua 4-7an jarri ondoren, beste 4 tanto jarraian egitea lortu zuen, markagailua 8-10ean jarritz. Hauek izan ziren Abel Barriolaren unerik hoberenak, zortzigarren tantoa bereziki. Baina gauzak horrela zeudela, norgehiagokaren emaitza aldatu zuen tantoa iritsi zen. Goizuetarraren aldeko tanto bat besterik ematen bazuen ere, Barriolaren joko onaren azkena izan zen, eta tanto honetatik aurrera Olaizola jaun eta jabe izan zen, goizuetarrak ia zuzenean 22 tantoak lortu baitzituen.

Julian Iparragirre pilotan aditua da eta igandeko norgehiagokaren inguruan bere iritzia eman du. «Abel Barriola gaizki hasi zen, eta Aimar Olai-

Julian Iparragirre: «Barriolak txapelketa ikaragarria egin du, txapela galdu arren»

Buruz buruko txapela eskuratu ez duen arren, eskuz banakako bi finaletan egotea lortu du, bere eskuko arazoak zirela-eta urte txarrak pasa ondoren



Abel Barriola Tolosako Beotibar pilotalekuan, azaroan. M. SOROA

zola ongi. Barriolak une on bat izan zuen, 10-8ra arte asko jokatu zuen eta gauzak estu jarri zizkion Olaizolari. Baina Barriolak Aimarri besoa jo zion eta epaileek tantoa Aimarri eman zioten. Nire ustez hor Ba-

rriola galdu egin zen». Iparragirreren iritziz, «merezimendu osoarekin» irabazi zuen goizuetarrak.

Buruz buruko Txapelketa abian jarri zenetik 3 hilabete pasa dira eta honen inguruan

ere mintzatu da Iparragirre. «Partida baina lehen nire kezka azaldu nituen. Barriolak txapelketa hasi zenetik 3 hilabete eman ditu jokoan, eta denbora asko da. Oso zaila da pilotari bat 3 hilabetetan goiko

puntan egotea. Bestalde, hila-bete batetik gora jokatu gabe egoteak ere ez dio onik egin».

«Goranzko joera»

Honetaz gain, Barriolak txapelketa «ikaragarria» egin duela azaldu du Iparragirrek. «Barriolak txapelketa ikaragarria egin du, txapela galdu arren. Beheko zulotik hasi eta 5 partida jokatu behar izan ditu finalera iristeko. Gero eta hobekia go ikusi dut. Baina igandean beste batzutan baino okerrago ikusi nuen».

Honetaz gain, igandeko partida izan ezik, Abel Barriolak orokorrean «txapelketa ona» egin duela azaldu du, «baina Olaizolaren hasiera ez zen Barriolarena bezain ona izan. Aimar Olaizolak justuago hasi zuen txapelketa, finalerdietan maila hobea erakutsi du, eta igandean, zer esanik ez», dio Iparragirrek.

LEITZA ▶ PILOTA

Oinatz Bengoetxeak Nafarroako lau t'erdiko finalerdia jokatu du

Leitzarrak Aimar Olaizolaren aurka jokatu du bi aste barru

ERREDAKZIOA

Larunbatean Oinatz Bengoetxeak Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketako finalerdietarako txartela eskuratu zuen, Patxi Ruizen aurka 22-13 irabazi ondoren.

Enpresek oraindik txapelketako egitaraua azaldu ez duten arren, Bengoetxea VI.ak bi aste barru jokatu ko du Aimar Olaizolaren aurka.

Patxi Ruiz indartsu hasi zen eta leitzarrari markagailuan aurrea hartu zion, lau tantorengatik. 7-9 zihoazela Lizarrako pilotariari burua galduarazi zion jokaldia iritsi zen, falta adierazi baitzioten, batere argi ikusi ez zen arren. Hau eta gero



Oinatz Bengoetxea Leitzako pilotalekuan entrenatzaile lanetan. J. A.

Bengoetxea VI.ak 5 tanto jarraian egin zituen. Halere, Ruizek bere azken tanto saioan markagailua 13-14 jartzea lor-

tu zuen. Lizarrarrak ez zuen beste tantorik egitea lortu eta leitzarra zuzenean 22ra joan zen.

TOLOSA ▶

Udalaren oharra, kontribuzioaren inguruan

Tolosako Udalak kontribuzioa ordaintzeko oharra bidali die haren ordainketa helbideratuta dutenei. Helbideratuta ez dutenei akats bategatik bi aldiz bidali zaie, eta azken oharrari kasurik ez egiteko eskatu du Udalak.

ABALTZISKETA ▶

VIII. Zaldi Lasterketan izena emateko epea

San Joan jaien baitan, Abaltzisketa VIII. Zaldi Lasterketa antolatuta dute igandeko. Abaltzisketa eta Amezketarte 2,5 kilometroak egingo dituzte. Izena emateko azken eguna hilaren 23a da, 605 756 743 zenbakian.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Alegian 2 logelatako etxebizitza polita salgai, erabat berria, 2 bainugelekin. 36.000.000 pezeta. 669 82 70 96.
Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

LANA

Zerbitzaria. Neska euskalduna behar da kafetegi batean lan egiteko. Esperientzia. Igande eta jai

egunak libre. Interesatuak deitu

943 67 04 46 telefono

[zenbakira.](#)

Ileapaintzailea. NEesperiantziadun

ileapaintzailea behar da Anoetan.

Kontratua eskaintzen da. 943 65

53 29.

Mantentze-lanetarako

teknikaria. Mantentze-lanetarako

teknikaria. IPARPET. Lekunberri-

Leiza. Informazio eta eskaintza

gehiago www.iparpet.com

[webgunean.](#)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Zizurkil. Ekainaren 25etik uztailaren 20ra izango diren *Oporretan Euskaraz 2007* udaleku irekietarako izen-ematea zabalik udaltxean. Gurasoen bilera, hilaren 21ean 18:30ean Atxulondo kultur etxean.

Villabona. Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa. Informazioa eta izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan. Epea: uztailak 6.

Tolosa. Urtero Topagunetik antolatzen duten Arcachoneko ur parkera irteera hilaren 27an izango da. Animatzen direnek 18 euro ordaindu beharko dituzte, topagunean bertan.

Tolosa. Hilaren 28an hasi eta lau egunetan XIX. San Juan areto futboleko txapelketa jokatu da. Izen-ematea Shanti kirolak-en hilaren 23a baino lehen.

Tolosa. Udaleko Gizarte Zerbitzueta dira Imbersoren 2007-2008 denboraldirako antolatutako bidaiak egiteko eskaerak. Hilaren 30a izango da izena emateko azken eguna.

Berrobi. Udalak piraguisimo ikastaroa antolatu du Txaramako presan ekainaren 25etik 30era. Izen-ematea, udaltxean hilaren 18a baino lehen.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Uztailaren 7ra arte, Aranburu jauregian, Kultur Etxeko arte plastikoaren lantegietako ikasleen lanen erakusketa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.


IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gorriti plazan ere bada Realaren aldeko sentimendua. J.SAIZAR



Tren geltokiaren inguruan oraindik bi mantentzen zituzten atzo. J.SAIZAR

Bihotz txuri-urdina

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Nahiz eta Lehen Maila galdu, Realaren aldeko bandera asko ikus daitezke eskualdeko etxebizitzetan



Tolosako Kondoko Aldapako etxe honetan Realaren aldeko bandera ikus daitezke lore artean. J. SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Orain inoiz baino gehiago, barru-barruan daukagun nortasuna kanporatzeko unea da. Halaxe dio egun hauetan ikus daitekeen telebista iragarki batek, okasiorako ezin egokia den doinu goibel baten laguntzaz. Eta Tolosaldean eta Leitzaldean jarraitzaile finak ditu. Iragarkiak eta Realak. Herri eta auzoetako balkoi eta leiho ugartan ikus daitezke egunotan bandera txuri-urdina, realzaleen ikurra. Bai, une zailetan. Erraza zen duela lau urte, goiko postuetan zebilenean, Gipuzkoako lehen futbol taldea gorapatzea, zaldi irabazlearen aldeko apustua egitea, harrotasunez jokatzea. Baina mementu latzetan azaltzen dira benetako sentimenduak eta ezagutzen dira pertsonak. Eta bihotz txuri-urdineko zaletu asko daudela ikusten da egun hauetan eskualdean. Primerakoak izaten jarraituko dugu. Une txarrak poesiarako. Etorriko dira hobeak. Aupa Real!

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaltxeko bulegoa